

EUSKARAZ BIZITZEKO

PIZ KUN DEA

Abenduaren
27an

EKITALDIA
BILBAO ARENA · 17:00

Amets Aranguren · Anari · Ane Labaka · Benizze
Eduarne Azkarate · Flako Fonki · Gontzal Mendibil · Gorka Urbizu
Itziar Ituño · Joseba Tapia · Maia Iribarne · Mejillon Tigre
Miren Gaztañaga · Miren Narbaiza · Olaia Aguayo
Ramon Agirre · Sustrai Colina ... eta gehiago

Sarrerak: **pizkundera.eus**



ABENDUAK 27 · EKITALDI NAZIONALA · BILBAO ARENA

Euskararen etorkizuna jokoan dago. Azken datuen arabera, euskal hiztunen % 17,5 baino ez dira egunerokoan euskara erdarak baino gehiago erabiltzen dutenak, eta euskararen presentzia ahultzen ari da klean, eskoletan, pantailetan.... Ezer egin ezean 11 urte barru euskara arnagunerik gabe gelditu daiteke.

Hauek guztiak euskararen egiturazko minorizazioaren ondorioak dira. Azken hamarkadetan zehar egindako ahalegin kolektiboari esker euskararen biziberritze prozesuak aurrerapen handiak izan dituen arren, ofizialtasunaren ukazioak, euskararen aldeko hizkuntza politikak eraisten ari diren oldarraldi judizial, politiko eta mediatikoa, zein glonalizazioaren egungo aldaera homogeneizatzailerak, bizitzaren digitalizazioak eta bestelako erronka berriek **euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdi linguistikoa** jarri gaituzte.

Ezinbestekoa da, euskara kinka larrian izan den beste momentu batzuetan bezala, berriro ere, **euskaltzasunaren giharra indartzea**. Izan ere, izan ditugu lehenago ere larrialdi gorriko uneak, behinbetiko itzaltzeko arriskumomentuak. Eta aldibakoitzean **milaka euskaltzaleren bulkada, erabaki eta ekimenetik** etorri dira Pizkundeak; une kritikoetan elkarrekin aritzeko eta egiteko izan dugun gaitasunetik.

Baina itzaropena ez da zain egotea. **Itzaropena egitea da.** Beraz, ekiteko garaia da. Ekar dezagun euskara berriz ere gure lehentasunetara.

Abenduaren 27an elkartu gaitzen euskaltzale guztiok:

- Euskaltzaleon indar eta batasunaren erakustaldi bat egiteko.
- Euskal jendarte osoari mezu argi bat helarazteko: euskara guztion ardura dela.
- Hizkuntza-politiketan jauzi sendo bat bultzatzeko.

Etorkizuna dago jokoan! Euskaltzaleon garaia da!

SARRERAK: www.pizkundera.eus

